

## Gizaki handien huts handiak

### ***Gizarte irekia eta haren etsaiak I***

Jatorrizko izenburua: *The open society and its enemies*

Egilea: Karl Popper

Itzultzailea: Josu Zabaleta

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Klasikoak S.A

### KARLOS DEL OLMO

Inork ez omen du egiaren monopolioa. Horra hor Karl Popper filosofo, matematikari eta fisikariak XX. mendean lan honen bitartez, besteak beste, zabaldu zuen mezurik garrantzitsuenetako bat. Karl Raimund Popper 1902ko uztailaren 28an jaio zen mundura, Vienan, erdi mailako sendi judu baten altzoan. Oso gaztetatik hasi zen zientzi metodologiaren gaineko lanak plazaratzen, filosofia ikasketak amaitutakoan. Beraz, XX. mendeko hirugarren hamarkadan Europa astindu zuen iraulketa ikaragarriak karrera etendako pentsalarien belaunaldiko kide izan zen. Gainerakoen antzera, eskarmentu latz hura ederto ere ederto itsatsi zuen bere lanetan, baina alferrikako dramatismoa gabe. *Ikerketa zientifikoaren logika* lan muntaduna argitaratu zuenean, Hitlerrek lehendakaritza eskuratu berria zuen.

Inoiz ez bezalako elite intelektualak sortzen zituen bitartean, Europa garai hartan era eskizofrenikoan maldan behera amilduz zihoan. Vienan, esaterako, sorkuntza borbor egon arren, hasita ere zegoen nazismoaren sugea arrautza erruten. Garai hartako Vienan Popper positibistez inguraturik bazegoen ere, berbera ez zen positibista, nahiz eta haietako gehienon laguna zen. Dena dela, Vienako intelektualen arteko eztabaida filosofikoek berehala izan zuten ezbeharreko akabera: 1936an Moritz Schlick asainatu zuen ikasle batek, nazien metafisikarekin bat ez zetozen guztiak judutzat jotzen zituen barbaro batek, nahiz eta Moritz judua izan ez. Ondorioz, Vienako Zirkuluko Carnap, Hempel, Tarski pentsalariak erbestera jo behar izan zuten. Popperrek antzera jokatu zuen hurrengo urtean, baina Zeelanda Berrira joanaz. Hango unibertsitateetan eskolak ematen eta *Gizarte irekia eta haren etsaiak* paratzen ekin zion: mota guztietako totalitarismoen aurka eta demokrazia eta ikuspegi aske zalearen alde (berak aldeztu zuen liberalismoa hurbilago zegoen-eta anarkismotik eskuindarren liberalkeriatik baino, nahiz eta azken urteotan zenbait pentsalari eskuindarrek Popper mesanotzeko liburu eta egile moduan darabilten).

*Gizarte irekia* lanaren oinarrian, nazien eta Viena inguruko komunisten jokabide sasikoak eta gezur populistak. 1919. urtean Alderdi Komunistako militantea zen Karl Popper. Oso garai latzak, beharrian eta miseria ekonomiko handikoak, herritarren arteko enfrentamenduz beteak. Gerra gaitz absolutu moduan ikusten zuen garai hartako herriak. Pentsalariak berak esan zuenez, lehengo mundua zelan birrintzen zen eta gerra zibila pizten ikusi behar izan zuten. Boltxebikeen propaganda oso erakargarri gertatzen zen gazteentzat eta ezin bestela gertatu Popperrentzat. Baina iraultzaileen gehiegikeriek gero eta urrunago sentiarazi zuten partidutik. Komunismoarekin izandako hartu-emanen ondorioz, Sokratesen "ezer ez dakidala besterik ez dakit" esanaren balioa ederto ikasi zuen, apaltasun intelektuala zer den.

*Gizarte irekia eta haren etsaiak* Vienan 1938. urtean hasi eta handik bost urtera Zeelanda Berrian amaitu zuen. Hasieran, *Sasiko profetak: Platon, Hegel, Marx* deitu gura izan zion lanari, eta denok ezagutzen dugun izenburuari eutsi arren, sarri erabili zuen, gerokoan, "sasiko profetak" izendapena. Esku artean dugun liburu honetan totalitarismoaren hasi-masien bila abiatzen da. Eta filosofo haiengan totalitarismoaren hazia ikusi arren, justizi egarriak eraginda zihardutela aitortu zien. Marxengan, esaterako, kapitalismoari egindako kritika moralaren balio ukaezina nabarmentzen zuen. Baina gizarte totalitarioen aurrez aurre, gizarte irekiaren kontzeptua kontrajarri zuen: izpiritu humanoari eta zientifikoari ondoen doakiena huraxe bide denez gero. Irrazionalismoaren egia

ukaezinaren aurrez aurre arrazionalismo politikoaren ideia jarri zuen, kritikaren eta eztabaidaren beharra, gobernaria odolik isuri gabe aldatzeko aukera. Zelan edo halan, Karlek zioen moduan, askatasunaren alde dagoen edonork ahalik eta gobernurik txikienaren, ahulenaren alde egon behar du, hala gobernurik ezera, anarkismora hurbiltzeko bidea izango du-eta. Neurri batean, bizi arlo guztietan ahalik eta arau gutxien eta banakoarentzako askatasun gehien egotearen alde agertzen zen.

Nabarmentzekoa da, bestalde, hil baino urte batzuk arinago, XX. mendearen amaieran, telebistari oso kritika gogorra egin izana, halako media mota demokraziaren erabateko etsaia omen delako, izan ere, gizarte kritikoaren, zabalaren posibilitatea ukatzen eta birrintzen duelako.

Josu Zabaletaren itzulpenaz nork zer esango du? Betiko moduan, dirdiratsua da, eta gaia gorabehera, gustura eta erraz irakurtzen denetakoa. Lehen ale honetan kontuan ipintzekoa da oharren garrantzia (liburuaren erdia haiexek jaten dutenez gero), eta nabarmentzekoa ere egilearen beraren ohar itsaso horretan itzultzaileak ere bere aleak isuri izana, hau da, oharren gaineko oharrik ere topatzeko aukera. Eta itzulpen beharraren bikaintasuna gorabehera, dena dela, bilduma berri honetako beste libururen batekin bezala, badirudi azken testua beste begiratutxo edo orrazturen baten beharrean dagoela, eta seguru asko han-hemenka agertzen diren huts arinak ezin lepora dakizkioke, bakarrik, itzultzaileari. Autu horri doakionez, dena dela, harira ezin egokiago dator Popperren beraren esan garrantzitsu bat: "Baliteke ni oker egotea eta zu, zuzen; beharbada, ahalegintxo bat eginda, bi-biok hurbilduko gara egiara". Edo, bestela esanda, "badut arrazionaltasunaren gaineko fede irrazional bat". Izan ere, "liburu bat ez inoiz burutzen, ordea".